| | |
|---|---|
| **Izenburua** | *Euskal Babel* (*Tribuaren Berbak*) |
| **Formatua** | Sekuentzia didaktikoa |
| **Egilea** | Kike Amonarriz, Iñaki Retegi, Josune Zabala eta Eusko Ikaskuntzaren Asmoz Fundazioa. |
| **Nori zuzendua** | DBHko ikasleei |
| **Helburuak** | Gaur egun Euskal Herrian dugun aniztasuna erakutsi eta eleaniztasunarekiko jarrera baikorra sustatzea. Euskararen normalizazio prozesua, eleaniztasunarekiko errespetuarekin bideratu behar dela erakutsi eta bide horretan, euskara abiapuntu izango duen oinarrizko hiztegi eleaniztuna osatzea. |
| **Metodologia** | Metodologia kooperatiboa: ikasten ari diren berdinen arteko interakzioa garrantzitsua da benetako ideien elkartrukea eta eztabaida sustatzeko; hau da, adimen kritikoa, objektibotasuna eta hausnarketa diskurtsiboa garatzeko. Beraz, lan eta esfortzu indibidualaz gain, talde lana funtsezkoa da, gizabanakoak besteekin elkarri eragiten ikasten baitu.<br><br>Ikasketa kooperatiboa honako printzipioetan oinarritzen da:<br>● Elkardependentzia positiboa.<br>● Aurrez aurreko interakzioa.<br>● Taldearen egitura/antolaketa kooperatiboa.<br>● Bakoitzaren, taldearen eta prozesuaren ebaluazioa. |
| **Denboralizazioa** | 8 saio |
| **Eranskinak** | Materiala eskuragarri: [https://tribuarenberbak.asmoz.org/01-jarduera8.html](https://tribuarenberbak.asmoz.org/01-jarduera8.html) |
| **Oharrak** | ● Sekuentziaren lanketa egiteko beharrezkoa den material guztia sarean eskuragarri dago: sekuentziak, lan-koadernoak eta irakaslearentzako gida didaktikoak.<br>● *Tribuaren Berbak* 10 sekuentzia biltzen dituen sekuentzia |

| | |
|---|---|
| | didaktiko sorta da. Irakasleak erabaki dezake material horietako bakarra, batzuk edo denak erabiltzea. Sortzaileen aldetik, egokia ikusiko lukete DBHko maila bakoitzean 3 sekuentzia erabiltzea (ebaluazio bakoitzeko bat, adibidez). |